

Kalimotxo lata ekoizteko kostuen egitura bi multzotan banatzen da: kostu finkoak eta kostu aldakorak. Kostu finkoen barruan sartzen dira produktua sortzeko behar diren hasierako gastuak. Horiek dira errezetaren garapena, markaren eta diseinua eta ekoizpenerako azpiegiturak. Kostu hauek hasierakoak dira eta ez dira ekoizpen-kantitatearen arabera aldatzen.

Bestalde, kostu aldakorak ekoizten dugunaren arabera aldatzen dira, eta hemen sartzen dira ardoa, kola, lata, enbalatzea, garraioa eta ekoizpen-lana. Zenbat eta kalimotxo lata gehiago ekoitzi eta saldu, orduan eta handiagoak izango dira kostu hauek, baina baita irabaziak.